



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

18/06/09

Orain 400 urte sorginkeria zala eta eragindako zigorrenkaitik egin dan parkamen eskaeran hartu dabe parte Bizkaiko Batzar Nagusiek

Ana Otadui Batzar Nagusietako Presidenteak, Gerediaga Elkartegaz eta Durangoko Merinaldeko Udaletako ordezkariakaz batera, bardintasuna eta pentsamendu libre aldarrikatzen dauen adierazpena sinatu dabe gaur, Merinaldearen Eguna dala eta.

Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako Presidenteak Merinaldearen Egunaren ospakizunean hartu dau parte gaur goizean, Gerediagako Batzarretxean, orain 400 urte, eskualdeko agintariak, sorginak ei zirala eta, hainbat emakumeri ezarritako zigorrak gogoratuz. “Hemen batutako Durangaldeko Batzarrak eta Gernikako Arbolaren azpian alkartutako Bizkaiko Batzarrak, Logroñotik edo Madrildik etorritako inkisidoreak eurak baino gogorragoak izan ziran ustezko sorgin hareekaz”, Azaldu dau Otaduik bertara joan diran agintarien aurrean.

Hori dala eta, “Gerediagan alkartzen ziran ‘leialakaz’” gertatzen ez dan moduan, emakume haren izenak ezagutzen ez doguzan arren, Presidenteak “euren inkonformismo legadua eta askatasunaren aldeko oihua” errebindikau gura izan ditu gaur. Horrez gain, Batzarretako erakundetik apustua egin dau “emakumeen eta gizonen arteko bardintasun eraginkorragoaren eta benetakoaren aldeko pausuak emoteko, behin betiko amaiera jarteko emakumeen kontrako indarkeriari”, Batzar Nagusiek “gure Bizkaiko historiako emakumeak ikusgai bilakatzeko” daukien konpromisoa berrestez aparte.

Gaur sinatu dan adierazpenak jasoten dauen, eta narratzaile gisa aritu dan Maite Arresek esan dauen moduan, aurtan 400 urte beteten dira, sorginkeria zala eta Astolako kartzelan atxilotuta egozan azkenengo emakumeak libre itzi ziranetik. Urtebete lehenago, Durangoko Merinaldeko leialek (alkateek), Gerediagako Batzarretxean alkartuta, “sorginak” jazarteko erabagia hartu eben, Alonso Salazar y Frias inkisidoreak Zugarramuriko epaiketen ostean egin eban txostenak esaten ebana baztertuta. Txosten horretan adierazoten ebanez, sorginkeria, kulturarik bako gizartearen mitoen eta bildurren ondorioa baino ez zan. Gertakizun horreen ikerketa lanak Jon Irazabal historiagileak, *Historias de mujeres, clérigos y legos en las “Tierras de Durango”* liburuxkaren egileak, egin ditu.

Ekitaldia Basurtuko Beti Jai Alai neska dantzarien ekitaldiagaz hasi da, musikaren doinuakaz Jaurrieta dantzatuz. Horren ostean, baseleiza barruan, Felix Arkarazo durangarrak gidatuta, Batzar Nagusietako Presidenteaz gain, Nerea Mujika Gerediaga Elkarteko presidenteak eta Aitor Lopez Durangoko Merinaldeko Mankomunidadeko presidenteak be egin dabe berba.

BIZKAIA ETA DURANGALDEA BERE “SORGINEI” BARKAMENA ESKATZEN DEUTSIE 400 URTE GEROAGO

Adierazpenean, orain 400 urte agintariek hartu ebezan erabagiengaitik emakume hareen ondorengoei parkamena eskatzeaz aparte, Gerediagan alkartu diran agintariek, euren erakundeetan gizonen eta emakumeen arteko bardintasunaren eta pentsamentu, kontzientzia eta sinesmen askatasunaren kontra dagozan ekintza guztiak gaitzetsiko dituela zin egin dabe.

Sinatu dabenen artean, Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako presidentea; Nerea Mujika Gerediaga Elkarteko presidentea; Aitor Lopez Durangoko Merinaldeko Mankomunidadeko presidentea; Jose Luis Navarro Donaire Abadiñoko alkatea; David Covos Sarraoa Atxondoko alkatea; Lorea Rementeria Totorika Berrizko Udaleko zinegotzia; Jose Maria Andres Ibañez de Garaio Durangoko Udaleko zinegotzia; Idoia Buruaga Barcena Elorrioko alkatea; Gontzal Sarrigoitia Oregi Garaiko alkatea; Iñaki Totorikaguena Sarrionandia Iurretako alkatea; Eva M^a Muñoz Irasuegi Izurtzako alkatea; Igor Agirre Barrientos Mallabiko alkatea; Endika Jaio Bilbao Mañariko alkatea; Miren Urgoitia Areitio Otxandioko Udaleko zinegotzia; eta Eneritz Azpitarte Aranzabal Zaldibarko alkatea egon dira.

NOTA DE PRENSA

09/06/18

Las Juntas Generales de Bizkaia participan en la petición de perdón por los castigos infringidos por brujería hace 400 años

La Presidenta de las Juntas Generales Ana Otadui, junto con Gerediaga Elkarte y representantes de los ayuntamientos de la Mancomunidad de la Merindad de Durango han firmado hoy un manifiesto reivindicando la igualdad y el pensamiento libre con motivo del Día de la Merindad

La Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui, ha participado esta mañana en la celebración del Día de la Merindad, en la Casa de Juntas de Gerediaga, recordando los castigos impuestos hace 400 años por las autoridades de la comarca a las acusadas por brujería. “Las Juntas de Durangaldea reunidas aquí y las Juntas de Bizkaia bajo el Árbol de Gernika fueron más duras con las supuestas brujas que los propios inquisidores llegados de Logroño o Madrid” ha explicado Otadui a las autoridades presentes.

Es por ello por lo que, a pesar de admitir que se desconocen los nombres de aquellas mujeres a diferencia de “los ‘fieles’ que se reunían en Gerediaga”, la Presidenta ha querido reivindicar hoy “su legado de inconformismo y su grito de libertad”. Asimismo, ha apostado desde la institución parlamentaria por “dar pasos hacia una más efectiva y real igualdad entre hombres y mujeres que termine de una vez por todas con la violencia contra las mujeres”, además de reafirmar el compromiso de las Juntas Generales de “visibilizar a las mujeres en la historia de nuestra Bizkaia”.

Tal y como recoge el manifiesto firmado hoy y como ha relatado Maite Arrese, quien ha ejercido como narradora, este año se conmemora el 400 aniversario de la liberación de las últimas mujeres acusadas de brujería y encerradas en la cárcel de Astola. Un año antes, el 3 de septiembre de 1617, los fieles (alcaldes) de la Merindad de Durango, reunidos en las Juntas de Gerediaga, tomaron la decisión de perseguir a las “brujas” haciendo caso omiso del informe elaborado por el inquisidor Alonso Salazar y Frias después de los juicios de Zugarramurdi, en el que afirmaba que la brujería era fruto de los mitos y miedos de una sociedad inculta. La investigación de este hecho ha corrido a cargo del historiador Jon Irazabal, autor también del libreto *Historias de mujeres, clérigos y legos en las “Tierras de Durango”*.

El acto ha dado comienzo con las dantzaris del grupo Beti Jai Alai de Basurto, que al son de la música han interpretado la dantza Jaurrieta. Más adelante dentro de la propia ermita y guiados por el durangués Felix Arkarazo, además de la Presidenta de Juntas Generales, han tomado la palabra Nerea Mujika, presidenta de Gerediaga Elkarte, y Aitor Lopez, presidente de la Mancomunidad de la Merindad de Durango.

BIZKAIA Y DURANGALDEA PIDEN PERDÓN A SUS “BRUJAS” 400 AÑOS DESPUÉS

En el manifiesto, además de pedir perdón a los y las descendientes de aquellas mujeres por el daño producido a causa de las decisiones tomadas por las autoridades hace 400

años, las autoridades presentes hoy en Gerediaga han prometido que sus instituciones condenarán todas aquellas acciones que vayan en contra de la igualdad de hombres y mujeres y de la libertad de pensamiento, conciencia y creencia.

Entre los firmantes se encontraban la Presidenta de las Juntas Generales, Ana Otadui; la presidenta de Gerediaga Elkarte, Nerea Mujika; el presidente de la Mancomunidad de la Merindad de Durango, Aitor Lopez; el alcalde de Abadiño, Jose Luis Navarro Donaire; el alcalde de Atxondo, David Covos Sarraoa; la concejala del Ayuntamiento de Berriz, Lorea Rementeria Totorika; el concejal del Ayuntamiento de Durango, Jose Maria Andres Ibañez de Garaio; la alcaldesa de Elorrio, Idoia Buruaga Barcena; el alcalde de Garai, Gontzal Sarrigoitia Oregi; el alcalde de Iurreta, Iñaki Totorikaguena Sarrionandia; la alcaldesa de Izurtza, Eva M^a Muñoz Irasuegi; el alcalde de Mallabia, Igor Agirre Barrientos; el alcalde de Mañaria, Endika Jaio Bilbao; la concejala del Ayuntamiento de Otxandio, Miren Urgoitia Areitio; y la alcaldesa de Zaldibar, Eneritz Azpitarte Aranzabal.